

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Ikus-entzunezko testuak aztertuz, kode anitzen bidez transmititzen duten mezua interpretatu eta interpretazioaren emaitza adierazi, emandako ereduaren arabera.	1.1 Eskainitako testuetan kode ikonikoaren ezaugarriak identifikatzen ditu.
	1.2 Eskainitako testuetan soinu-kodearen ezaugarriak identifikatzen ditu.
	1.3 Kode anitzak (hitzezkoa, ikonikoa eta soinu-zkoa) erlazionatuz testuen mezuak interpretatzen ditu.
	1.4 Zuzen idazten du ikus-entzunezkoen eremuko lexikoa.
2. Ikus-entzunezko mezuak modu kritikoan aztertuz eta erreproduzitzen dituzten giza balioak eta estereotipoak inferituz, haien egokitasuna zein desegokitasuna balioetsi emandako ereduaren arabera.	2.1 Eskainitako ikus-entzunezko testuek iradokitzen dituzten baloreak interpretatzen ditu, arrazoiak emanez.
	2.2 Balore desegokiak iradokitzen dituzten kode anitzak darabiltzaten testuak identifikatzen ditu, desegokitasuna justifikatuz.
3. Emandako euskarrietatik informazioa eskuratuz, eztabaidagai jakin batekiko iritzia adierazi eta justifikatu argudio mota desberdinak baliatuz.	3.1 Eztabaidagai bati buruz emaniko iritzia justifikatzeko argudioak identifikatzen ditu.
	3.2. Eztabaidagai bati buruz emaniko iritzia justifikatzeko argudioak motaren arabera sailkatzen ditu.
	3.3 Adibideetan oinarritutako argudioak duten testu laburrak osatzen ditu, emaniko euskarriak baliatuz (iritzia adierazten duten baieztapenak, argudioak edota haiek osatzeko beharrezko informazioa duten testuak eta hizkuntza-baliabideak)
	3.4 Autoritate-argudioak duten testu laburrak osatzen ditu, emaniko euskarriak baliatuz, (iritzia adierazten duen baieztapena edota argudioak osatzeko beharrezko informazioa duten testuak eta hizkuntza-baliabideak)
4. Eztabaidagai batekiko besteen iritzia errefusatzeko eta berea justifikatzeko argudiatu, besteen argudioak nork bere diskurtsoan txertatuz.	4.1 Eztabaidagai baten aldeko eta kontrako argudioak sailkatzen ditu.
	4.2 Eztabaidagai berari buruzko testuetatik, kontra-argudiaketa darabilten testuak identifikatzen ditu.
	4.3 Eztabaidagai berari buruz, kontra-argudioak dituzten testu laburrak osatzen ditu, landutako aldeko eta kontrako argudioak erabiliz.
5. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	5.1 Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.
6. Ahozko tertulia literarioa eraikitzea helburu duen interakzio egoeran, diskurtso horretarako beharrezkoak diren hizkuntza baliabideak erabili, eta besteek esandakoa bere diskurtsoan integratu hizkuntza baliabide egokiak erabiliz.	5.2 Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.
7. Informazioa zuzen erabiltzen duten esaldiak baloratu enuntziatu bilakatu zentzu positiboa zein negatiboa adierazten duten adjektibo baloratiboak modu kontzientean erabiltzeko.	6.1. Tertulia literarioetan eraginkortasunez aritzeko gidoi bat prestatzen du.
	6.2. Tertulia literarioa egiten du ikasitako hizkuntza-baliabideak erabiliz.
	6.3. Tertulia literarioa osatzen du kideekiko begirunea adierazten duten esapideak txertatuz.
	6.4. Esaldiak osatzen ditu ideien arteko kausa-ondorio erlazioa edo aurkaritza erlazioa adierazteko testu-antolatzaileak erabiliz.
8. Ohar kritikoaren atalak ikasi ondoren, landutako ikus-entzunezkoaren inguruko ohar kritikoa idatzi.	7.1. Balorazioa adierazten duten esaldiak idazten/esaten ditu.
	7.2. Idazten/esaten dituen esaldiak zentzuzkoak dira, koherentzia semantikoa dago adjektiboan eta gainerako esaldiaren artean.
	7.3. Adjektiboak esaldiak eskatutako deklinabide kasuetan zuzen idazten/esaten ditu.
9. Ikus-entzunezko baten inguruko ohar kritikoa egin ahal izateko baliabideak eskuratu, barneratu eta aplikatu.	8.1. Ohar kritiko baten atalak bereizten ditu.
	8.2. Esaldiak osatzen ditu ideiak behar den bezala lotuz; kausa-ondorio harremanak, aurkaritza harremanak... zuzen adieraziz.
	8.3. Ortografia eta deklinabidea berrikusten ditu entregatu aurretik eta zuzenketak bideratzen ditu.
	9.1. Kontrol-zerrenda baliatuz ohar kritikoaren egituraren atalak eta haien ordena egokia bermatzen ditu.
10. Ohar kritikoa berrikusteko kontrol-zerrenda talde lanean sortu eta norbere ohar kritikoaren zein emanikoen berrikusketan aplikatu.	9.2. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritikoko datu bibliografikoen atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.
	9.3. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritikoko liburuaren edukaren atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.
	9.4. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritikoko liburuaren balorazioaren atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.
	10.1. Kontrol-zerrendan adostutako urratsak norbere ohar kritikoa berrikustean aplikatzen ditu.
10.2. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritikoko liburuaren balorazioaren atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatu eta zuzendu egiten ditu.	